Fecha y firma de la licitadora

Elorrioko udala

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

ELORRIOKO HIRUGARREN ADINEKOEN ETXEKO TABERNA-KAFETEGIAREN USTIAPEN ADMINISTRAZIO KONTRATUA ESLEITZEKO (ADMINISTRAZIO KONTRATU BEREZIA). PROZEDURA IREKIA.

KONTRATUAREN ELEMENTUAK

1.- BOTERE ESLEITZAILEA

. Botere esleitzailea: Elorrioko Udala

. Kontratazio-Organoa: Alkate andrea (Tokiko Gobernu Batzarrari ordezkotzan emona 2019ko ekainaren 27ko 464 Alkatearen Ebazpen bidez (2019ko uztailaren 5eko 128 zenbakia duen BAO).

. Kontratazio-Mahaia: Iraunkorra

. Kontratazio-mahaiaren osaera, eta baldintza-agirietara eta dokumentazio osagarria lortzeko esteka: http://www.elorrio.eus/eu-ES/Udala/Idazkaritza/Kontratatzailearen_profila/Orrialdeak/default.aspx

. Kontratazio-organoaren helbidea: Herriko Plaza z/g – 48230 ELORRIO (Bizkaia)

. Tel.: 946582712

. Fax zk.: 946583287

. Kontsultak egiteko helbide elektronikoa: elorrio@elorrio.eus

. Zatiketa loteetan: EZ. Kontratua loteetan ez zatitzeko justifikazioa: zerbitzuaren ezaugarriak ez dute ahalbidetzen loteen identifikazioa.

2.- XEDEA ETA KONTRATUAREN KOKALEKUA. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Baldintza-agiri honen xedea da Elorrioko hirugarren adinekoen etxeko (Aldatzekua jauregia, Ibaikua kalea) erdisotoko lokalean dagoen taberna-kafetegia ustiatzeko administrazio kontratu bereziaren baldintzak arautzea.

Taberna-kafetegi zerbitzuaren prestazioa emongo da, bai horretarako atondutako lokalean, bai lokal honen kanpo aldean jabari publikoan instalatu den terrazan, administrazio-klausula

partikularren agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian agertzen diren termino eta baldintzetan.

Udal arkitekto tekniko andrea izango da kontratuaren arduraduna.

3.- EGIKARITZEKO EPEA

Kontratua URTEBETErako izango da, eta beste hiru urtez luzatzeko aukera izango du. Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta esleipendunarentzat derrigorrezkoa izango da, beti ere, aurreabisua kontratuaren indarraldia amaitzen den eguna baino bi hilabete lehenago egiten bada.

Kontratuaren egikaritze-epea 2022ko abuztuaren 28an hasiko da, edo kontratazio-organoak adierazten duen beranduagoko beste egun batean, aipatutako egunerako kontratua sinatu ezin bada.

Udalak eskumena du, hala uste badu, zerbitzu-arrazoiengatik edo instalazioak puntuan ipini behar direlako, hasiera-eguna aldatzeko.

Kontratua amaitzean eta kontratazio barria egiteko lizitazio publikoa ebazten ez den bitartean esleipenduna indarreango aseguru-kontratua luzatzera behartuta geratuko da gehienez sei hilabeterako tasa- eta estaldura-baldintza berberetan.

Emakidaren xede den higiezina dagokion egunean entregatzen ez bada, fidantza galdu egingo da, eta Udalari atzerapenak sor dakioken edozein kalte ordaintzeko beharra ekarriko du, baita dagokion kanona ordaintzen jarraitzekoa.

Emakidan, beti, dago aukera iraungitze-data baino lehenago ebazteko eskumena, interes publikoko gerora sortutako inguruabarrek horrela justifikatzen badute. Kasu honetan, esleipendunari sortutako kalteegandik ordaindu beharrekoa ordainduko zaio.

4.- LIZITAZIORAKO AURREKONTUA

Urteko gehienezko lizitazio-aurrekontua HIRU MILA, ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EURO, ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI ZENTIMOKOA izango da (**3.790,78 €**), gehi %21eko BEZa.

Lizitatzaileek, egiten dituzten proposamenetan eskaintzen duten zifra beherantz hobetu ahal izango dute, eta ez dira onartuko honako zenbateko honetatik gorako eskaintzak: 3.790,78 €/urte gehi BEZa.

Aipatutako lizitazio-preziotik gora egiten den edozein eskaintza ekonomiko, automatikoki, baztartu egingo da.

Kontratuaren balio zenbatetsia: 15.163,12,00 € (3.790,78 € x 4 urte kontratuaren gehienezko denbora)

Kontratuaren prezioa ordaintzeko 2022 ekitaldiko aurrekontuan finantzaketa aurreikusita dago 2022.2302.227.59 aurrekontu-aplikazioan, udal kontu-hartzailetzak xxxxxxxxxxxxxxxxxxx egindako txostenean ikus daitekeen moduan.

Halaber, aurrekontuetan eskumena duen organoak behar diren urteetako aurrekontuetan behar izango diren kredituen erreserba egingo du. Datozen aurrekontu ekitaldietan dagozkien zenbatekoen besteko kreditu izendatuko da, kontratuaren adjudikazioa kreditu egokiari eta behar bestekoari baldintza etengarriaren pean geratzen delarik.

5.- ORDAINTZEKO ERA

Kontratuaren prezioa ordainduko da hileroko fakturak, prezio berekoak, aurkeztu eta adostasuna jaso ondoren, modu honetan:

Fakturak, Fakturen Sarrerako Gune Nagusian aurkeztuko dira, udal web orriaren bidez:

https://www.elorrio.eus/efaktur/empresas/index.action?request_locale=eu_ES

Faktura elektronikoan, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen erregelamendua onartzekoa, aurreikusten dituen datuak eta betebeharrak sartzeaz gain, Hogeita Hamahirugarren Xedapen Gehigarriaren bigarren atalean, eta fakturazio elektronikoari buruzko araudian aurreikusitako hauek sartu beharko dira:

- Hartzailea: ELORRIOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ELORRIO

- Kontratazio-Organoa: ALKATETZA

- Kontabilitate publikoetan eskumenak dituen administrazio-organoa: ALKATETZA

DIR3 kodea honako hau da:

Bulego kudeatzailea: L01480329 ELORRIOKO UDALA

Tramite-unitatea: L01480329 ELORRIOKO UDALA

Bulego kontablea: L01480329 ELORRIOKO UDALA

Udalak, emondako zerbitzuen kontratuan jasotakoa jarraituz, adostasuna ziurtatzen duten agiriak onartu beharko ditu zerbitzua emon ondorengo hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

Edonola ere, kontratistak ez badu aurkezten faktura dagokion administrazio-erregistroan hogeita hamar eguneko epean faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, interesen sorrera ez da hasiko harik eta hogeita hamar egun igarotzen diren arte faktura zuzen aurkezten duen egunetik, baldin eta Administrazioak ez badu fakturarekiko onarpenik eman, hala badagokio ere, eta ez badu dagokion ordainketarik egin.

6.- AURREKONTU-APLIKAZIOA

Kontratuaren prezioa Elorrioko Udalaren Aurrekontu Orokorraren gastuen honako aurrekontu-aplikazioar egotziko zaio: 2022.2302.227.59.

7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dira prezioak berrikusiko kontratuaren berezitasunak direnak direlako.

8.- BERMEAK

Kontratuaren pertsona edo erakunde esleipendunak, hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko, 500,00 euroko behin betiko bermea ezartzera dago behartuta. Berme hau udal diruzaintzan ezarri beharko da banku txartel bidez edo Udalak zehaztutako kontu korrontean zenbatekoa sartuz, baita ezarri ahal izango da urriaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 108 artikuluan ezarritako bitartekoen edozeinetan.

Bermea itzuliko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111 artikuluan xedatzen duenarekin bat, instalazioen funtzionamendua egoera onean dagoela eta garbiketa egiaztatu eta gero.

9.- BALDINTZA OROKORRAK

Preskripzio Teknikoen Baldintza-agiriaren arabera. Kontratua Udalarekin koordinazioan garatuko da Preskripzio Teknikoen Agirian zehaztu moduan.

HARREMANAK ESLEIPENDUNAK HIRUGARRENEKIN

Kontratuaren esleipendunak, pertsona edo erakundea izan, hirugarrenekin (hornitzaileak eta zerbitzuak emoten dituztenak) sortzen dituen harremanak ez dute Elorrioko Udalarentzak obligazorik ekarriko, eta zehagago honako preskripzio hauek egiten dira:

. Esleipendunaren eta hirugarrenen arteko kontratuak, kontratu hau iraungitzean amaituko dira.

. Erabiltzaileei edo beste pertsona batzuei sortu litezkeen kalte-galerak ez dute inolako erantzukizunik sortuko Udalaren aurrean, eta kontratistak bere gain hartuko ditu osorik. Esleipenduna bera izango da, esleitutako zerbitzuaren funtzionamendu normalaren edo ez normalaren eraginez hirugarrenen aurrean sortutako kalteen erantzule zuzena, horretarako dagokion erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat sinatu beharko du, gutxieneko 600.000,00 eurokoa. Kontratistak aseguru hau egiteak ez du salbuetsiko kontratista bere erantzukizun guztiak betetzetik, beraz, behartuta geratzen da aseguru etxeak finkatuta dituen ez betetzeak bere gain hartzera.

10.- ZERBITZURA ATXIKITUTAKO PERTSONALA

Kontratu honen esleipendunak, pertsona edo erakundea izan, zerbitzu honi atxikita nahiko pertsonal izango du. Eta pertsonal hau ez da inolaz ere ez Udalaren mende geratuko, beraz, esleipendunaren kontura izango dira Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioak eta lan kontratuarekin lotutako gainerakoak.

11.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuena, 211 eta 313 artikuluetan jasotakoak dira.

Gainera, bidezkoa izango da honako kasu hauetan:

a) Kontratua egikaritzen den bitartean zerbitzua etetea.

b) Kontratuan ezarritako ordutegia ez betetzea.

c) Kanonaren edozein ordainketa partzial egiterakoan atzerapena.

d) Instalazioen kontserbazio edo garbiketan negligentzia edo Udalak zerbitzuarekin lotuta emondako instrukzioak ez betetzea.

Suntsiarazteko adierazitako kasuetako edozeinetan, instalazioak Udalaren jabetzan geratuko dira, kontratuaren esleipendunari, pertsona edo erakunde izan, kalte-ordainik emoteko behar barik, instalazioak funtzionamendu egoera onean eta garbi utziz.

12.- KONTRATUAREN AMAIERA ETA BERME-ALDIA

Kontratua suntsitzean edo amaieran akta jasoko da, eta esleipenduna behartuta geratzen da zerbitzuaren prestazioaren hasieran bere esku jarri ziren ondasunak berrezartzera eta erabilera baldintza onetan eta garbi uztera. Halaber, HIRU HILABETEko berme-epea ezartzen da, jasotzeko egintza formala egiten den egunetik Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak aurreikusitako ondorioetarako.

Administrazioak berme-epean egiaztatuko balu egindako lanetan kontratistaren erruz hutsak edo akatsak daudela, kontratistari zuzenketak edo konponketak berme-epearen barruan egitea eska diezaioke.

ESLEITZEKO PROZEDURA

13.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisikoak edo juridikoak betiere kontratatzeko debekuren batek eragiten ez badie eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa edo gaitasun tekniko eta profesionala egiaztatu badute.

Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

14. KAUDIMEN EKONOMIKOA

SPKLaren 74 artikuluak xedatzen duenarekin bat, sektore publikoko kontratuak egiteko lizitatzaileek gutxienezko kaudimen-baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatu beharko dute:

- Kaudimen ekonomikoa: Erantzukizun zibileko aseguru-poliza hirugarrenentzat eta beharginentzat jardueratik ondorioztatu daitezkeen arriskuak bermatuko dituztenak, erantzukizun zibila orokorrean bermatuz eta negozioaren ustiapenarenaK, gutxieneko estaldura 600.000,00 eurokoa (SEIEHUN MILA EURO) izanik, ezbeharra eta biktimako.

15. PROZEDURA

SPKLaren 131 artikuluak xedatzen duenarekin bat, kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, eta irizpide-aniztasuna izango da.

16.- PUBLIZITATEA.

Administrazio Publikoen kontratuak esleitzeko lizitazioaren iragarkia Elorrioko Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da: http://www.elorrio.eus/eu-ES/Udala/Idazkaritza/Kontratatzailearen_profila/Orriak/Mesasdecontratacion.aspx eta bertan kontratuaren lizitazio-deialdiarekin lotuta informazioa emongo da eta administrazio-klausula partikularren agiria argitaratuko da, eta balego, dokumentazio osagarria ere bertan argitaratuko da.

17. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Kontratua esleitzeko oinarrizko irizpideak honako hauek dira:

Zifra edo ehuneko bidez baloratu ezin diren irizpideak: 70 puntu gehienez.

1.- Zerbitzuaren kudeaketa/lokalaren dinamizazioa, gehienez 60 puntu. Baloratuko direnen artean daude:

- Erabili beharreko giza baliabideak: 15 puntu gehienez.

Lan-merkatuan sartzeko zailtasun gehien duten pertsonak kontratatzea (329/2003 Dekretua): gehienez 5 puntu.

- Jarriko dituen baliabide materialen deskribapena: gehienez 15 puntu.
- Zerbitzuaren antolamendua. Eskainitako produktuak: 15 puntu gehienez.
- Garbiketa beharren planifikazioa: gehienez 15 puntu.

2.- Ostalaritza sektorean esperientzia baloratuko da eskatutako gutxienekoaren gainetik, sei hilabeteko bakoitzeko esperientzia 0,5 puntu, gehienez 10 puntu. Esperientzia lan kontratu bidez egiaztatuko da edo Jarduera Ekonomikoen Zergarako Alta egiaztagiri bidez. Agiri hauek memoriarekin batera B gutun-azal elektronikoan aurkeztu beharko dira.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 146.2.a) artikuluak xedatzen dituen ondoreetarako, balorazio-komitea honako hauek osatuko dute:

- Udal arkitektoaandrea edo udal arkitekto tekniko andrea.
- Berdintasun teknikaria
- Euskara teknikaria:

Zifra edo ehuneko bidez baloratuko diren irizpideak: gehienez 30 puntu

Eskaintza ekonomikoenari puntuazio altuena emongo zaio, eta gainerako eskaintzei ezarriko zaizkien puntuak ateratzeko erabiliko den formula honako hau izango da: eskaintza merkeenaren eta baloratzen den lizitatzaileak aurkeztutako eskaintzaren artean ateratzen den kozientearen emaitza bider irizpideari ezar dakizkiokeen puntuen guztia. Hau da:

$$\frac{Ob}{Oi} \times z$$

"Ob" eskaintza ekonomiko baxuena bada eta "Oi" baloratzen den lizitatzailearen eskaintza, "Z" izango da irizpide honetan ezarri daitezkeen puntuen zenbaki topea.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontutik gorako proposamenak, automatikoki baztertuko dira.

Eskaintza ekonomikoa III Eranskinean egingo da.

KONTRATUAREN LIZITAZIOA.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Lizitazio hau Udal honetako kontratatzailearen profilean iragarriko da, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoena.

Eskaintzak aipatutako Plataformaren bitartez aurkeztu beharko dira, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita egutegiko hurrengo 15 egunen barruan, azken egunaren arratsaldeko 2ak aurretik.

Udal honetako kontratatzailearen profilera sartzeko helbide honetara jo beharko da: http://www.elorrio.eus/eu-ES/Udala/Idazkaritza/Kontratatzailearen_profila/Orrialdeak/default.aspx. Leku honetan baita ikusi ahal izango dira bai baldintza-agiriak, bai agiri osagarriak.

Lizitatzaileek baldintza-agirien edo agiri osagarrien gaineko informazio gehigarria eskatu duten kasuan, eskaintzak aurkezteko azken eguna baino hiru egun lehenago eskatu dutenei bialduko zaie, aipatutako epea iraungi baino sei egun lehenago, gutxienez, eskatu badute.

Lizitazio prozedura honetan aipatutako bide elektronikoen bitartez aurkezten ez diren eskaintzak ez dira onartuko. Honetarako, beharrezkoa da Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazioaren Plataformako erregistratutako erabiltzailea izatea.

Kasua bada eskaintza bat osatzen duten agirietako edozein ezin dela ondo ikusi, inguruabarraren gaineko jakinarazpena egin ondoren 24 orduko epean lizitatzaileak aukera izango du akatsa emoten duen fitxategian sartutako agiria formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako agirian ezingo da eskaintzan sartutako jatorrizkoaren gainean inolako aldaketarik egin. Kontratazio-organoak egiaztatzen badu agirian aldaketak egin direla, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenak Administrazio-Klausula Partikularren Agirian aurreikusitakora doituko dira, eta proposamena aurkezteak lizitatzaileak klausula edo baldintza guztiak onartzen dituela esan gurako du, inolako salbuespenik ez erreserbarik gabe.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, aldaerak onartzearen kaltetan barik. Ezingo du ezta ere proposamena sinatu aldi baterako enpresa batekin edo aldi baterako enpresa baten baino gehiagotan agertu. Arau hauek hausteak baztartzea ekarriko du lizitatzaileak sinatutako eskaintza guztiak.

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legerian eta SPKLren esleipenaren publizitateari eta hautagai-zerrenda eta lizitazioei emon beharreko informazioari buruzko xedapenetan xedatutako alde batera utzi gabe, hautagaiek konfidentzialtzat jo ahal izango dute eskaintzak egitean haiek emondako informazioaren zati bat, bereziki sekretu tekniko edo komertzialei eta alderdi konfidentzialei buruzkoa. Udalak ezingo du informazio hau zabaldu lizitatzailearen baimenik barik.

19. PROPOSAMENEN ERA ETA EDUKIA

Lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztuko dituzte. Gutun-azal hauek lizitatzaileak edo ordezkatzen duen pertsonak sinatuta egongo dira eta bakoitzaren barruan gutun-azal bakoitzerako klausula honetan zehazten den edukia sartuko da.

A GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA – Erantzukizunpeko adierazpena II. Eranskinean zehaztutako edukiarekin, Adierazpena Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) arabera egingo da. EKAB eredu honetan, halabeharrez jakinarazpenetarako izango de gaitutako posta elektroniko helbide bat agertu beharko da.

B GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA – Proposamen teknikoa (memoria): Gutun-azal honetan 17 klausulan agertzen diren zifra edo ehunekotan baloratu ezin diren irizpideekin lotutako memoria eta dokumentazioa sartuko dira (memoria eta esperientzia profesionala, azken hau egiaztatzen duten agiriekin).

C GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA – Eskaintza ekonomikoa: III. Eranskinean agertzen den ereduaren arabera egindako eskaintza ekonomikoa sartuko da**.** Eskaintzak jaso beharko du, atal independentean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion zenbatekoa.

20. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA, BALORATZEA ETA PROPOSAMENAK ZABALTZEA

Kontratazio-mahaiak erantzukizunpeko adierazpena eta gainerako dokumentazioa kalifikatuko du, eta zuzendu daitezkeen akatsik ikusiko balu, enpresaburuari hiru eguneko epea emongo dio akatsok zuzentzeko, eta kasua bada bost eguneko epea argitzeko edo agiri osagarriak aurkezteko.

Behin dokumentazioa kalifikatu ondoren, eta, hala badagokio, esandako jarduketak egin ostean, kontratazio-mahaiak onartuen gaineko irizpena emongo du, baita baztertuenena eta baztertzeko arrazoiak.

Jarraian, kontratazio-mahaiak, saio berean, 2. gutun-azala zabalduko du, bertan agertzen den dokumentazioa balorazioa egin behar duen organo arduradunari automatikoki emonaz.

Geroago, zifra edo ehunekotan baloragarriak ez diren irizpideei ezarritako haztapena, kasua bada, eskaintza ekonomikoak zabaltzeko eta irakurtzeko egingo den jendaurreko ekitaldian jakinaraziko da. Kontratazio-organoak, behar besteko aurrerapenez, kontratatzailearen profilean argitaratuko du eskaintza ekonomikoak zabaltzeko jendaurreko ekitaldiaren eta emaitza irakurtzeko eguna.

Jarraian, kasua bada, eskatutako txostenak egin eta gero, kontratazio-mahaiak proposamenak, aktarekin eta egoki iritzitako proposamenarekin batera kontratazio-organoari bialduko dizkio.

Esleipendun lez proposatutako lizitatzaileak lizitazio-prozedura batean parte hartzeko behar diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko aurretiaz aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztutakoan, kontratazio-mahaiak aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu egingo du eta zuzentzekoak diren akatsak atzematen baditu, esleipendunari hiru eguneko epea emongo dio zuzentzeko, eta kasua bada, bost eguneko epea, argibideak edo dokumentu osagarriak aurkezteko.

Interesdunei, pertsona edo erakunde izan, jakinarazpena, lizitatzaileak berak emondako posta elektronikoaren helbidean egingo zaie (III. Eranskina).

Dokumentazioa kalifikatu ondoren, kontratazio-mahaiak Administrazioarekin kontratatzeko legezko betebeharrak egoki bete direla esango du, edo horrela ez bada, lizitatzailea prozeduratik kanpora utziko du eta kontratazio-organoari esleipen-proposamena egingo dio hurrengo lizitatzailearen alde, eskaintzak sailkatutako ordena jarraituta.

Kontratuaren esleipenaren jakinarazpena eginda eta errekurtsoak tartekatzeko epeak igarota errekurtsorik tartekatu barik, eskaintzei erantsitako dokumentazioa interesdunen eskura geratuko da. Dokumentazioa, esleipenaren jakinarazpen-egunetik hiru hilabete igarota, berreskuratu ez bada Administrazioaren zaintzeko ardura desagertu egingo da.

.

21. ADJUDIKATZEKO PROPOSAMENAREN ONDORIOAK. ADMINISTRAZIOAK KONTRATUA EZ ADJUDIKATZEKO EDO EZ EGITEKO ERABAKIA HARTZEA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURAN ATZERA EGITEA

Kontratuaren adjudikazio-proposamenak ez du inolako eskubiderik sorrarazten proposatutako lizitatzailearen alde Administrazioaren aurrean, kontratua formalizatzen ez den bitartean.

SPKLaren 152 artikuluak xedatzen duenarekin bat, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko edo prozeduran atzera egiteko erabakiak kontratazio-organoak hartu ahal izango ditu kontratua formalizatu baino lehenago.

Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia bakarrik hartu ahal izango da espedientean behar bezala justifikatuta dauden interes publikoko arrazoiak daudenean. Prozeduran atzera egiteko erabakia, kontratua prestatu edo adjudikazio-prozedura arautzeko arauen arau-hausteren batean oinarritu behar da, zuzendu ezin daitekeena, eta espedientean atzera egiteko arrazoia justifikatu egin beharko da.

22.- KONTRATUA ESLEITZEA.

Kontraruaren esleipena kontratazio-organoari dagokio.

Kontratazio-organoak kontratua eskaintza hoberena egin duen lizitatzaileari adjudikatuko dio SPKLaren 145 artikuluak xedatutakoaren arabera.

Esleipena bi hilabeteko epean erabakiko da, proposamenak zabaltzen direnetik hasita, arrazoitutako ebazpen bidez.

Esleipenaren jakinarazpena lizitatzaile guztiei egingo zaie eta Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da gehienezko 15 eguneko epean.

Kontratazio-organoak lizitazioa hutsal deklaratu ahal izango du, kasua bada, kontratazio-organoaren proposamenez, baldintza-agiri honetan agertzen diren irizpideekin bat onargarria den eskaintza edo proposamenik ez dagoenean.

Kontratazio-organoak mahaiaren proposamena onartu eta gero, dagokien zerbitzuek eskaintza hoberena egin duen lizitatzaileari errekerimendua egingo diote, gehienezko hamar balioduneko epean, errekerimenduaren jaso-egunaren biharamunetik hasita, honako agiri hauek aurkezteko:

* Enpresa pertsona juridikoa bada, eskritura edo eratze-agiria, estatutuak edo sortze-egintza garatzen duen jarduera arautzen duten arauak agertuko direnean, kasua bada dagokion erregistro publikoan behar moduan inskribatuta egongo dena pertsona juridikoaren arabera, eta baita Identifikazio Fiskalaren Zenbakia (IFZ).

* Banakako enpresaburua bada, NANa edo, erregelamendu bidez ordezten duen agiria.

* Autonomoen Erregimeneko Alta-Agiria, hala badagokio.

* Erantzukizun Zibileko Aseguruaren prima ordaindu izanaren egiaztagiria.

* Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzan egunean egotearen egiaztagiriak.

* Jarduera Ekonomikoen gaineko zergarako, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, altaren jatorrizko orria edo egiaztatutako fotokopia

* Behin betiko bermea ezarri izanaren agiria: 500,00 €.

Gainera, proposatutako esleipendunak ez du eduki beharko epe exekutiboan zorrik Elorrioko Udalarekin. Elorrioko Udalak, ofizioz, egiaztatuko du diruzaintzan dauden datuen bidez baldintza hori betetzen duela.

Errekerimendua emondako epearen barruan behar moduan bete ezean, dokumentazio bera sailkatuen zerrendako hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio, sailkapen ordena jarraituta.

23. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatutakoan burutuko da.

Kontratua administrazio agirian formalizatu beharko da, lizitazio-baldintzei doitu beharko dena.

Kontratua gehienez ere 15 egun balioduneko epean formalizatu beharko da lizitatzaileek esleipenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik, SPKLaren 151. artikuluak xedatzen duen eran.

24. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Administrazioari dagozkion prerrogatibak honako hauek dira: kontratuak interpretatzea, eta kontratua betetzerakoan sortzen diren zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiak direla-eta kontratuak aldatzea, kontratuok suntsiarazteko erabakia hartzea eta honen ondorioak zehaztea 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuena, testu bateginak eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak ezarritako mugen barruan eta betekizunei eta ondorioei lotuta.

25. EZ BETETZEAGATIK ZIGORRAK KONTRATISTARI

Ez betetzeak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

a) Ez betetze arinak dira:

- Atzerapenak esleipendunak betebeharrak betetzean.

- Baldintza-agiri honetatik ondorioztatzen diren gainerako betebeharren edo Udal honek emoten dituen zerbitzu-aginduen ez betetzeak, ez betetze larriak edo oso larriak ez denean.

b) Ez betetze larriak dira:

- Esleipendunak arau-hauste arinak errepikatzen dituenean.

- Esleipendunaren aktuazioaren ondorioz jabari publikoaren balio-galera sortu denean.

- Udalaren administrazio aginduen desobedientziak.

- Udal Zerbitzuen ikuskaketa gura ez izatea.

- Jabari publikoan kontratu honek xede ez duen beste jarduera bat garatzea.

- Ezarritako ordutegiak ez betetzea.

- Espazioan obrak edo aldaketak egitea baimenik barik.

- Baldintza-agirian eskatutako aseguru-polizak ez izatea.

- Zerbitzuko ondasunak eta instalazioen kontserbazio egoera ez zaintzea eta zaintzeko behar diren konponketak ez egitea.

c) Ez betetze oso larriak dira:

- Esleipendunaren oinarrizko betebeharrak haustea.

- Isun larriak errepikatzea.

- Esleipendunak jarduera ez garatzea.

- Edozein titulu bidez kontratua beste norbaiti emotea aurretiko baimenik barik.

d) Arau-hausteei isunak ezarriko zaizkie.

- Falta oso larriak direnean isuna 601,00 € eta 2000,00 € bitartekoa izango da.

- Falta larriak direnean isuna 301,00 € eta 600,00 € bitartekoa izango da.

- Falta arinak direnean isuna 300,00 € bitartekoa izango da.

Zigorrak ezartzea ez du salbuesten Udalak, kontratistaren ez betetzearen ondorioz kalteak eta galerak erreklamatzeko eskubidetik ez eta kontratua ebazteko aukeratik baldintza-agiri honetan eta herri administrazioetako kontratuen legedian oinarrituta.

26.- PREZIOAK

Elorrioko Udalak erretirodunentzat eta desgaituentzat ezarri beharko diren prezioak ezarriko ditu. Gainerako bezeroentzat esleipendunak finkatuko ditu prezioak askatasun osoz.

Baldintza-agiri honetako I. Eranskinean erretirodunentzat eta desgaituentzat izango diren prezioak zehazten dira.

27. BETEBEHARRAK LAN- ETA SOZIAL- ETA GARDENTASUN-ARLOAK / BERDINTASUNA / HIZKUNTZA GAIETAKOAK

a) Laneko, gizarteko eta gardentasuneko betebeharrak, eta laneko segurtasun eta osasunekoak.

Kontratista behartuta dago lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasunaren alorrean indarrean dagoen araudia betetzera. Halaber, behartuta dago honako hauek betetzera: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzekoa; Emakume eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa; Lan Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legea; urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia, hala nola kontratua egikaritzen den bitartean promulgatzen diren arauak.

Kontratista kontratuaren denbora guztian behartuta geratzen da aplikatu behar duen hitzarmena kolektiboko arauak eta baldintzak betetzera.

Enpresa lizitatzaileek esleipena jasoz gero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko dizkien hitzarmen kolektiboa zein izango den zehaztu beharko dute.

Halaber, apirilaren 7ko 3/2016 Legearen, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa, 5.2 artikuluak xedatzen duenarekin bat, eskatu eta gero, informazio guztia emotera behartuta dago, legeak xedatzen dituen hala nola udal eremuan emoten diren arauetako betebeharrak betetzeko.

Ez da inolako lan-loturarik egongo kontratua gauzatzeko erabiliko diren behargineen eta Elorrioko Udalaren artean, izan ere, kontratua berariaz dago enpresa esleipendunaren zuzendaritza- eta antolaketa-boterearen mende, legez ezarritako esparru eta agindu guztietan, eta, beraz, enpresa hori da kasuan aplikatu beharreko lege-xedapen guztiak betetzera behartuta dagoen bakarra, bereziki kontratazioaren, Gizarte Segurantzaren, laneko arriskuen prebentzioaren eta tributuen arloei dagokienez, behargin horiek ez baitute inola ere Elorrio**ko Udalarekin lotura juridiko-laboralik izango, legez edota kontratuz Udalari dagozkion kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak alde batera utzita.**

b) Berdintasuna

Ondorioz, kontratazio-prozeduratik kanpo geratuko dira Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean, Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoan eta Euskadiko Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako kontratatzeko debekua duten pertsonak eta enpresak, beste batzuen artean honako baldintza hauek betetzen ez dituztenak: hala badagokio, berdintasun-plan bat izateko betebeharra ez betetzea (901/2020 Errege Dekretua), langile guztien ordainsari-erregistroa ez izatea (902/2020 Errege Dekretua), behargineen eskubideen aurkako delituengatik, laneratzearen eta aukera-berdintasunaren arloko arau-hauste astunagatiko zehapen irmoagatik eragindakoak, edo lan- edo gizarte-arloko arau-hauste oso astunagatik, laneko arriskuen prebentzioaren, indarkeria matxistaren edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau-hausteak barne.

Lizitatzaile guztiak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute kontratatzeko aipatutako debekuetako batean ere ez daudela sartuta esanez, eta zehazki aipatu beharko dute 50 behargin baino gehiago dituen enpresa bada enpresako plantilarentzat berdintasun plana egin eta ezarri duela.

Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoak, xedatzen dituen printzipioak eta betebeharrak beteko dira, hala nola urriaren 14ko 901/2020 Errege Dekretua (Berdintasun-Planak Enpresetan) eta urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Ordainsari Berdintasunari buruzkoa. Zehatzago:

* Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan ez dute hizkuntza modu sexistan erabili behar, eta saihestu beharko dute emakumeen eta gizonen edozein irudi ez-estereotipatu, eta sustatuko dituzte berdintasun balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzukidetasuna zein rolen eta genero-identitateen aniztasuna. Esleipendunak kontratuaren

barruan emakumeen eta gizonen egoeraren azterketa egingo du, eta desberdintasunak ikusten baditu zuzentzeko neurriak proposatuko ditu. Modu berean, esleipendunak ebaluazio adierazleak eta mekanismoak egin beharko ditu emakumeen eta gizonen arteko benetako inpaktua aztertzeko, eta behin kontratua amaitutakoan berdintasunaren bidean.

* Kontratua gauzatzean, kontratatutako enpresak edo kontratatutako emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du tratuari, enplegurako sarbideari, lanbide-sailkapenari, sustapenari, iraunkortasunari, prestakuntzari, azkentzeari, ordainsariei, lan-kalitateari eta lan egonkortasunari, lanaldiaren iraupenari eta antolamenduari dagokienez.

* Era berean, kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak betearazpenari atxikitako pertsonen bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa bateragarri egiteko neurriak eutsiko ditu.

* Gainera, kontratatutako enpresak edo azpikontratak, 10 behargin baino gehiagorekin, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak izango dituela bermatuko da, kontratua gauzatzera atxikitako behargineei dagokienez.

* Kontratua betearazteko behargin gehiago kontratatzeko premia balego eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak plantillan desoreka badu emakume gutxiago dituelako, kontratu hau gauzatzeko eta kontratu osorako emakume bat kontratatu beharko du, edo gutxienez, aldi baterako kontratua mugagabeko kontratua bihurtuko du. Plantilla desorekatutzat joko da emakumeen ordezkaritza plantilla osoaren % 40a baino txikiagoa denean.

c) Hizkuntzaren gaineko betebeharrak.

Kontratuarekin lotutako lanak, jakinarazpenak, txostenak eta gainerako agiri guztiak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan entregatuko dira, euskarari lehentasuna emonaz. Gainerako jarduerek ere, indarrean dagoen euskararen udal ordenantzak dioena jarraitu beharko dute. Bereziki, hizkuntza paisaia zainduko da, baita “lehenengo berbea euskaraz” irizpidea.

Udala kontratistarengana Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan zuzenduko da, eta ez dago itzulpenik egitera behartuta.

Zerbitzu-lekuetan edo inguruetan hiritarrei zuzendutako oharrekin jarriko den edozein kartel edo ohar gutxienez euskaraz egongo da, eta bi hizkuntzetan jartzen denean, hau da euskaraz eta gaztelaniaz lehentasuna euskarari emongo zaio eta hizkien neurriak ere 1/3 handiagoak izango dira, eta gaztelaniazko testua ondo irakurriko dela bermatuta geratuko da.

Herritarrekin, enpresekin edo udal beharginekin harremana izango duen pertsonalak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak menderatuko ditu.

28. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEN ARI DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI SORTUTAKO KALTEENGATIK

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 196 artikuluak xedatzen duenarekin bat kontratista izango da kontratua gauzatzeko egin beharrekoen ondorioz hirugarren batzuei eragindako kalte eta galeren erantzulea.

29. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak, interes publikoko arrazoiak daudenean, SPKLaren 205 artikuluak aurreikusten dituen inguruabarretako bat dagoenean kontratua aldatzeko aukera izango du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 203, 206 eta 207 artikuluak xedatzen dutenarekin bat, horrekin lizitazioaren eta esleipenaren baldintza funtsezkoenak aldatzen ez badira.

Aipatutako aldaketak egiten badira kontratistak derrigorrean bete beharko ditu.

30. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEA

Kontratazio hau gauzatu ahal izateko behar izango balitz izaera pertsonaleko datuak erabiltzea, kontratistak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorretik ondorioztatzen diren betebeharrak bete beharko ditu, hala nola, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren Hogeita bosgarren Xedapen Gehigarritik ondorioztatzen direnak abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, esleipendunaren betebeharrak, “tratamenduaren arduradun” gisa, batuko dituen dokumentua formalizatuz.

I. ERANSKINA

ELORRIOKO HIRUGARREN ADINEKO ZENTROKO TABERNA- KAFETEGIA – PREZIOAK - 2022

KAFEA	CAFÉS	PREZIOAK
Hutsa	Café solo	1,00 €
Ebakia	Café cortado	1,00 €
Kafesnea (edalontzia)	Café con leche (vaso)	1,20 €
Kafesnea (kikara)	Café con leche (taza)	1,10 €
Cola-Cao	Cola-cao	1,10 €
Esnea	Vaso leche	1,00 €
Infusioa: (txortaloa, ezki-ura, mantzanilla, te berdea, te gorria, te arrunta)	Infusiones (poleo menta, tila, manzanilla, té verde, té rojo, té normal)	1,00 €

LIKOREAK	LICORES	PREZIOAK
Belar-uxuala	Orujo hierbas	1,20€
Uxual zuria	Orujo blanco	1,20€
Patxarana	Pacharán	1,50€
Brandy “Carlos III”	Brandy “Carlos III”	1,50€
Whiskia	Whisky	1,80€
Kubata	Cubata	3,50€
Gin-tonik / Gin-kas	Gin-tonic / Gin-kas	3,50€

FRESKAGARRIAK	REFRESCOS	PREZIOAK
Garagardoa “San Miguel”	Cerveza “San Miguel”	1,10
Garagardoa “San Miguel 0,0”	Cerveza “San Miguel 0,0”	1,10
KAS (laranja /limoia)	KAS naranja / limón	1,30
Zukua (anana / melokotoia)	Zumo de piña / melocotón	1,30
Bitter Kas	Bitter kas	1,30
Aquarius (laranja)	Aquarius naranja	1,30
Coca-Cola	Coca-cola	1,30
Tonika	Tónica	1,30
Ur naturala	Agua natural	0,90

BESTE BATZUK	OTROS	PREZIOAK

Muztioa	Mosto	0,60
Sagardo naturala	Sidra natural	0,80
Ardo arrunta (baltza-zuria-gorria)	Vino corriente (tinto-blanco-claro)	0,60
Ardo berezia (eskilarapea-gorria-txuria) Edozein marka.	Vino especial (eskilarape-claro-blanco). Cualquier marca.	1,15
Baltza kriantza. Edozein marka.	Tinto crianza. Cualquier marca	1,40

Elorrioko Jubilatuen Zentroko Tabernan zerbitzatzen diren eta zerrenda honetan sartu ez diren produktuei % 20ko deskontua aplikatuko zaie erretiratu eta desgaitasunen bat duten pertsonei.

II. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO-ADIERAZPENA, KONTRATATZEKO BETEBEHARRAK BETETZEKOARI BURUZKOA

EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB) SARTZEA. BETETZERAKOAN HONAKO OHARRAK JARRAITU BEHARKO DIRA

Eranskinean agertzen den Europako Kontratazio Agiri Bakarraren ereduan bete behar den erantzukizunpeko-adierazpena betetzeko honako pausu hauek emon behar dira:

1.- Jaitsi zure ekipoan Sektore Publikoko Plataforman eskuragarri dagoen DEUC.xml fitxategia – lizitazio honetako eranskinak erlaitza.

2.- Zabaldu honako esteka hau: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd

3.- Hautatu hizkuntza "español".

4.- Hautatu aukera hau: "soy *un operador* económico".

5.- Hautatu honako aukera hau "importar *un* DEUC".

6.- Gora kargatu ekipoan aurrez jaitsitako DEUC.xml (1. Urratsa).

7.- Hautatu herrialdea eta klikatu "siguiente".

8.- Bete DEUC atalak.

9.- Inprimatu fitxategia eta sinatu.

10.- Agiri hau behar moduan beteta eta sinatuta lizitaziora aurkeztu behar diren gainerako agiriekin batera aurkeztu beharko da, deialdia arautzen duten agirietan jasotakoarekin bat eta bertan zehaztutako epearen barruan.

11.- Kontratuak lote bat baino gehiago baditu, lizitaziora aurkezten den lote bakoitzeko adierazpen bat bete beharko da.

12.- Lizitazioan ABEE baten barruan aurkezten denean, ABEEa osatzen duen enpresa bakoitzak agiri bat bete beharko du.

13.- Lizitatzaileak kontratua sinatzeko egiaztatu behar den kaudimena beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritua aurkezten badu, alde batera utzita izaera juridikoa delakoa dela, agiri bat lizitatzailearen izenean bete beharko du eta beste bat atxikitako bitartekoak dituen enpresa baten izenean.

III ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Nik, ……..jaunak/andreak, NAN …… (nire izenean) edo ……..…… (ordezkatzen dudan enpresaren izenean) …… IFZ duena, eta helbide fiskala .....n ..... kalea ..... zenbakian dudanak, adierazten dut, Kontratatzailearen Profilean ……ko ……n ….. n argitaratutako iragarkiaren barri dudala, baita …… kontratuaren esleipenerako eskatzen diren lan babesarekin eta baldintzekin lotutako betebeharrak eta baldintzak zeintzuk diren.

1) Betebehar horiek nere gain hartzeko konpromisoa hartzen dudala, aipatutako betekizun, baldintza eta betebeharrei hertsiki lotuta, honako prezio honetan urte oso bategatik …… €, gehi %.... BEZari dagokion honako zenbateko hau ……., guztira …… € direnak. Eta prezioaren barruan kontzeptu guztiak barne daudela ulertu behar da, hau da, zergak, gastuak, tasak eta edozein maila fiskaleko arielak, baita kontratistaren industria etekina.

2) Preskripzio Teknikoen Agiria, Administrazio-Klausula Partikularren Agiria eta kontratua arautuko duten gainerako agiriak ezagutzen eta osotasunean onartzen ditudala.

3) Ordezkatzen dudan enpresak zabaltzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen betebehar eta obligazio guztiak betetzen dituela.

4) Ordezkatzen dudan enpresa ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 71. artikuluak zerrendatzen dituen debekuetan sartuta eta indarreango xedapenen ezartzen dituzten zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, eta sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik ez dela betetzen ari.

Eguna eta lizitatzailearen sinadura